

## **Ikasketen amaierako lana**

**Kurtsoa: 4**

**Kreditu kop.: 10**

**Deskribatzaileak:**

- Ikasketen amaierako lanaren helburua da titulazioarekin zerikusia duten zeharkako konpetentziei, konpetentzia orokorreari eta berariazko konpetentziei dagokienez ikasleak lortu duen bereganatze-maila egiaztatzea, eta baita jarduera profesionala burutzeko duen gaitasuna frogatzea ere.
- Agiri bat prestatu beharko da edo arte eszenikoen ikerketako konpetentziak bereganatzea sustatzera bideratutako esperientzia pedagogiko bat, proiektu sozial bat edo errealizazio artistiko bat.
- Dokumentala, historiografikoa edo performatiboa ahal izango da, eta Interpretazioa espezialitateko Arte Dramatikoko Goi Mailako Tituluaren profil profesionalean ezarritako eremuren bati buruzkoa izango da.
- Ikasketen amaierako lana banaka edo taldean egin daiteke; nolahi ere, lanaren defentsa banaka egingo da.
- Ikasleak proposatu ahal izango du lanaren gaia, baina dagokion didaktika-departamentuari egokituko zaio onartzea ala ez, bertan garatuko diren ikerketa-lerroekin duen lerrotzekaren arabera.
- Espezialitateko ikasketa-plana osatzen duten irakasgainen bateko irakasle arduradun baten zuzendaritzapean egingo da Ikasketen amaierako lana.
- Lana amaitu ondoren, ikasleak ekitaldi publiko batean defendatuko du, ikastetxe emaileak horretarako izendatutako epaimahai baten aurrean.
- Hezkuntza-administrazioak Ikasketen amaierako lanaren araudia edo erregelamentazioa ezarriko du, ikastetxe emailearekin adostuta.

**Konpetentziak:**

Ikasleak gai izan behar du:

- Ikerketa-jarduera bat gauzatu eta dokumentatzeko arte eszenikoen esparruan.
- Proiektuak eskatzen dituen faseak eta metodologiak ezarri eta garatzeko: dokumentatzea, egituratzea, informazioa eta datuak bilatzeko teknikak bilatzea, ondorioak ateratzea, etab.
- Lan-hipotesi bat ezartzeko eta ikerketa-estrategiak planteatzeko.
- Diziplinako jakintza-eremu baten ezagutza ulerkor eta esanguratsua erakusteko.
- Iritzi informatuak eta arduratsuak eta ikerketa-xede den alorrean edo prozesuan proposamen alternatiboak prestatzeko.
- Norberaren ikaskuntza autorregulatzea eta autonomiaz bizitza osoan zehar ikasteko gaitasuna erakustea.

- Lagundu, taldean lan egin eta dibertsitatearekiko eta desadostasunarekiko errespetua erakustea.
- Ideiak zalu eta argi komunikatzeko, ahoz nahiz idatziz, eta, horretarako, komunikazioak eskatzen dituen baliabide teknologikoak erabiltzeko.

### **Ebaluazio-irizpideak:**

Ebaluazioan, ikasleak helburu hauek lortzeko duen gaitasuna baloratuko da:

- Ikerketa edo ekintza performatiboa planifikatzeko eta prozesu horiek eskatzen dituen metodologiak erabiltzeko.
- Ikasketen amaierako lanaren tutoreak emandako jarraibideak onartu eta ezarritako gidoia jarraitzeko.
- Modu autonomoan lan egiteko, erakutsiz informazioa biltzean, aztertzean eta laburbiltzean independentzia eta irizpide pertsonala dituela, eta sormena eta originaltasuna ideiak eta argumentuak garatzean.
- Honako hauek lotuko dituen lan bat egiteko: aukeratutako gaiaren egokitasuna, helburuen zehaztasuna, zorrotasun metodologikoa, oinarri teorikoa eta azken dokumentu edo errealizazio artistikoaren egituraren koherentzia.
- Ezarritako epeak betetzeko, helburuak betetzeko behar diren baliabideen erabilera optimizatuz.
- Prozesuko eta amaierako ideiak, argumentuak eta aberastasuna argi adierazten dituzten dokumentuak lantzeko.
- Ikerketaren beharretarako bibliografia egokia erabiltzea.
- Adierazpen-argitasuna eta egitura eta hurrenkera logikoak izango dituen lan bat aurkezteko, modu sintetiko, koherente eta zehatz batean, baliabide teknologiko egokiak erabiliz.
- Epaimahai aztertzailearen galderei erantzun egokiak emateko, ebaluatutako lanaren gaia menderatzen duela erakutsiz.